

Argitalpen honek, 2005eko urriaren 28an Bilbon *El significado político de las víctimas del terrorismo: el valor del Estado de Derecho y de la ciudadanía* izenburupean egin zen *Fernando Buesa Blanco Fundazioa / Aldaketa I. Topaketak* jardunaldiaren edukiak biltzen ditu.

Ekimen hau bi erakundeek Gasteizen egun batzuk lehenago, urriaren 25ean, sinatutako lankidetzako akordio markoaren lehenengo ekitaldia izan zen. Egun horretan *Gernikako Autonomia Estatutuaren XXVI. urteurrena* ospatu zen. Dokumentua, Fernando Buesa Blanco Fundazioaren presidentek, Natividad Rodriguezek, eta Aldaketa hiritarren plataformaren presidentek, Joseba Arregik, izenpetu zuten¹.

I. TOPAKETAK:

PARTAIDEAK, IKUSPEGIAK ETA ARGITALPEN-TRATAMENDUA

Partaideak. Terrorismoaren biktimen orotzapena eta duintasuna aitortzeko asmoz, *Fernando Buesa Blanco Fundazioa / Aldaketa I. Topaketak* ekitaldian parte hartu zutenak ondorengo hauek izan ziren: Jesus Loza, Fundazioaren presidenteordea; Joseba Arregi, Aldaketaren presidente eta euskal politikaren aztertzailea; Maite Pagazaurtundua, Terrorismoaren Biktimen Fundazioko presidentea; Hermann Tertsch, *El País* egunkariko kazetaria, nazioarteko politikan aditua; Antonio Elorza, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan Politika Pentsamenduaren katedraduna; eta Javier Gomez Bermudez, Audientzia Nazionalaren Penaleko Salako presidentea.

Ikuspegiak. Erakundeen izenean, J. Loza eta J. Arregiren aurkezpenaren ondoren, partaideek *Topaketen* gaia euren lan eta gogoeten ikuspegitik azaldu zuten: J. Arregik «Biktimen memoriaren instituzionalizazioa» gaiari heldu zion; M. Pagazaurtunduak terrorismoaren indarkeriaren fenomenoak dakarren «*Biktimazio* bikoitza» aztertu zuen; H. Tertschek «Totalitarismoen biktimak: europar oroitzapena» gaia aurkeztu zuen; A. Elorzak «Komunitatearen patriotismoak: erantzun demokratikoa» arloari buruz jardun zen; eta amaitzeko, J. Gomez Bermudezek «Politika eta biktimen oroitzapena: Justiziaren papera» auzia garatu zuen.

Argitalpen-tratamendua. Argitalpen honek bere irakurketarako, aurkezle eta partaideen hitzaldiak biltzen ditu, eurek aurkeztutakoaren transkripzioetan oinarrituz. Argitalpen lana, hitzaldiak testu idatziaren izaerara egokitzen saiatu da egileen lankidetzarekin, baina orokorrean jatorrian zuten ahozko izaera baztertu gabe².

Era berean, hitzaldien edukiak kontutan hartuz, argitalpen taldea *Topaketa* hauetan landu diren gaiak aberasten saiatu da edizio oharrekin (azalpenezkoak, bibliografikoak, periodistikoak edo araugintzazkoak), baita ere partaide bakoitzaren profil laburra gehitu du.

Argitalpena bi eranskin dokumentalekin osatzen da (*Lankidetzako akordio markoa* eta *Jardunaldiaren Programa*). Aurkibide onomastikoa ere gehitzen da, aurkezpen eta hitzaldietan aipatutako pertsonen, erakundeen edo entitateen bilaketa errazteko.

Argitalpen taldea

¹ Fernando Buesa Blanco Fundazioa eta Aldaketa hiritarren plataformaren arteko Lankidetzako akordio markoa argitalpen honen Eranskinetan aurki daiteke.

² J. Gomez Bermudez epailearen testuari dagokionez, argitaratutakoa, egilearekin adostuta, aurkezpenerako erabili zuen txostenean oinarrituta dago funtsean.
Bestalde, A. Elorzak bere hitzaldian zuzenketa eta ohar osagarriak egin ditu, *Topaketa* hauen hitzaldiaren oinarria aldatu gabe.